



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

180. INFORMAZIO BULETINA

> 2022ko azaroa



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Europar Batasuna
Unión Europea

Eskualde Garapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Hacienda y Finanzas

GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Next funtsek auzoak berroneratzen eta trenbide-jarduketak egiten lagunduko dute Gipuzkoan

Besteak beste, Txonta (Eibar) eta Basaundi (Lasarte) auzoak edo Euskotrenen linea hobetuko dira.

Hiri-berroneratze integrala Hiri Agendaren proiektu nagusietako bat da, eta Berpiztu programak, Inbertsio Estrategikoen Erakunde arteko Planak (2022-24) eta Next planaren Berreskuratze eta Erresilientzia Tresnak jasotzen dute. Martxan dauden 11 auzoei beste 14 gehituko zaizkie 12 udalerritan, besteak beste, Arrasaten, Donostian, Eibarren, Elgoibarren, Irunen, Leaburun, Erreterian eta Soroluzen. Garraioei dagokienez, Euskotrenek hazkunde handia izango du inbertsioetan, 24,4 milioitik 33,8ra – Next Generation EU funtsen eraginez –, besteak beste, Donostialdean metroaren zerbitzurako unitateak kontratatzeko programa amaitzeko. Next funtsen bidez, 5 milioi bideratuko dira trenbideak estaltzeko, oinezkoentzako eta bizikletentzako pasealeku berria egiteko Erdialdea-Azitain tartean (Eibar); eta 2023an ere hasiko dira eraberritzen Anoetako geltokia, Usurbilgoa eta Elgoibarko Altolako trenbide-saihesbidea.

Bestalde, azaroaren 22an Gobernu Kontseiluak baimendu ditu, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposatuta, Espainiako Gobernuarekin eta Bilbo, Durango, Eibar eta Lasarte-Oriako Udalekin egindako hitzarmenak, udalerririk horiei Next Generation EU funtsetatik zuzeneko dirulaguntzak emateko, eta horrela, bertako auzoen hiri-berroneratze integralerako programak bultzatzeko. Programa horiek dagoeneko martxan daude.

Funts horiek Gobernu zentralaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bidez ematen dira, eta 2,15 milioi euro bideratzen dituzte Txontan (Eibar) egiten ari den esku-hartzera, eta 4,39 milioi euro Basaundi-Bailaran (Lasarte-Oria).

Guztira 16,77 milioi euro dira Europako funtsetatik bideratutakoak. Kopuru horri Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko auzo zaugarri horietan inbertitu dituen 13,97 milioi euro gehitu behar zaizkio.

Jarduketan barruan sartzen dira:

- Eraikinak birgaitzea energia-efizientziaren ikuspegitik —haiek deskarbonizatzeko—
- Irisgarritasun unibertsala
- Suteen aurkako segurtasuna
- Eraikinak handitzea, bizigarritasun-baldintzak hobetzeko
- Hiri-ingurunean esku hartzea sartzen da, azpiegitura berdeak eta urdinak eratuz



> 2022ko azaroa

- Oinezkoentzako espazioa hobetzea
- Autokontsumo partekatuko komunitateak sortzea
- Bizilagun horientzako beste prestakuntza-jarduketa batzuk eta enplegua sortzea ere
- Guztiek hurbileko bulegoak dituzte auzoan. Bulego horien bidez:
 1. Auzokoen erkidegoei laguntza ematen zaie egin beharreko esku-hartzeetan,
 2. Eskura ditzaketen laguntzen berri ematen zaie bertan.
 3. Gizarte-izaerako jarduketak egiten dira.

Azken hauek, bai gazteenekin —beren denbora librean garatzen diren kultura-arloko ekimenen bidez—, bai helduekin, gizarte-gaietako, enpleguko eta gizarteratzeko sistemek osatutako sektoreen arteko mahaia antolatuz; horietan, esparru bakoitzaren premia espezifikoak lantzen dira.

Lau auzo horiek hiri-berroneratze integralerako planeko lehenak dira. Plan horrek, hainbat finantzaketa-iturriren bidez, Euskal Autonomia Erkidego osoko 21 udalerrri hartzen ditu dagoeneko.

[\(informazio+ - aurrekontua\)](#)

[\(informazio+ - auzoak\)](#)

> **Lanbide Heziketako Nazioarteko Foroak CoVE Europako bikaintasun-sarea zabaldu du Donostiatik**

Europako Enplegu Komisarioak Danobat empresa eta Teknika eta Altuna zentroak bisitatu zituen

Europako Enplegu eta Gizarte Gaietako komisario Nicolas Schmit buru duen estrategia CoVE ekimenean oinarritzen da (Bokazio Bikaintasuneko Zentroak), haien artean Lanbide Heziketako lankidetzak sortzeko eta 2027an 100 zentrori iristeko. Batzordeak 400 milioi bideratu ditu horretarako Erasmus 2021-27 programan. Euskadin, sarearen bi zentroak Gipuzkoan daude: Miguel Altuna (Bergara) eta Teknika (Errenteria). Biek parte hartzen dute EXAM 4.0 eta LCAMP 4.0 Fabrikazio Aurreratuari buruzko Europako plataformetan. Foroa Eusko Jaurlaritzak eta Europako Batzordeak antolatu dute, EB osoko partehartzaileekin. Lehendakariak bideo baten bidez esku hartu du, eta LHK eta CoVEk produkzio-sarearen eta sektore estrategikoen lehiakortasunerako duten garrantzia nabarmendu du. Batzordeak 2023 Gaitasunen Europako Urtea izendatu du.

[\(informazio+ – Eusko Jaurlaritza\)](#)

[\(informazio+ – Europako Batzordea\)](#)



> **Aldundiak eta Next funtsek iraupen luzeko 14 zaintza-proiektu berritzaile bultzatu dituzte**

Gizarte Politiketako Sailak 892.433 euro bideratu ditu

Bi dirulaguntza lerro berriren bidez, 2023an 1.450.000 euro gehituko dira, gizarte- eta zaintza-arloan proiektu berritzaile berriak sustatzeko. Next Generation EU Europako planetik datorren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan garatutako laguntza-ildoak dira. Gipuzkoako iraupen luzeko zainketen estrategiari balio erantsia ematea dute helburu nagusi, gizarte-zerbitzuen esparruan berrikuntza sustatzen duten proiektu pilotuen bidez. Ekimen berritzaileak jarriko dituzte abian, eta horien ebaluazioak sektore osoarentzako ikaskuntzak ateratzea ahalbidetuko du, Gizarte Politiketako foru diputatu Maite Peñak adierazi duenez.

(informazio+)

> **Desberdintasun txikieneko Europako lurraldeen artean jarraitzeko helburua berretsi du ahaldun nagusiak**

Etorkizuna Eraikiz estrategiak 51 milioi izango ditu 2023an eta 93 milioiko erreserbak

Gipuzkoako Foru Aldundiak Etorkizuna Eraikizen aldeko apustua egiten jarraituko du, lurraldearen oraingo eta etorkizuneko erronka handiei erantzuteko tresna nagusi gisa. Foru-aurrekontuek 51 milioi euro bideratu dituzte hari lotutako ekimenetara, gehienak proiektu estrategikoetarako (40,3 milioi). Gainera, Etorkizuna Eraikiz ekimenak bere etorkizuna bermatuko du, 93 milioi euro gordeko baitira konpromiso-kredituetan hari lotutako lan-ildoetarako. Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak azpimarratu duenez, Gipuzkoak eta munduak aurrekaririk ez duen eraldaketa-prozesu bati aurre egin behar diote. "Desberdintasunaren aurka borrokatzea da, oraindik ere, Aldundiaren helburu estrategiko nagusia, Europa mailan klaseko onenen artean egoten jarraitzeko".

(informazio+)



> Uhinak kongresuan, Irunen, itsasertzean klima-aldaketari egokitzeko proiektu europarrak aurkeztu dira

Egiptoko COP27-an LIFE Urban Klima 2050 eta Zarautzerako proiektu pilotua ere nabarmendu ziren

Ficobak eta Aztik antolatu dute Uhinak 5. kongresua, Egiptoko COP27 munduko klima-konferentziarekin batera. Bi foro horietan, Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoan eragina duten proiektuak aurkeztu ditu. Foru Aldundia ere Uhinak sustatzen duten erakundeen artean dago, mugaren bi aldeetakoak direlarik. Foru erakundeak, Naturklima Fundazioaren bidez, eta LIFE Urban Klima 2050-rekin batera, Klima Aldaketaren Behatoki bat bultzatu du euskal kostaldean. Ingurumen diputatuak Urban Klimarekin duen konpromisoa gogorarazi du Soraluzen egindako beste ekimen baten aurkezpenean. Europako LIFE ingurumen-esparruaren proiektu hau klima-aldaketari buruzko euskal proiektu nagusia da, eta COP27n aurkeztutako Regions Adapt 2021-22 txostenean jasota dago. Lehenengo ekintzen artean, Zarautzen egindakoak nabarmentzen dira. Uhinak eta COP27 aurkeztu da ere Regions4Climate proiektu berria. Bertan, Europako Batzordeak Euskadi izendatu du 3 eskualde liderren artean, Horizon 2020 Europako berrikuntza-esparruaren barruan.

(informazio+ - Uhinak) (- E.J. Uhinak-en) (- COP27) (- RegionsAdapt txostena) (- Soraluze)

> Irungo Basque Circular Summitek Euskadik ekonomia zirkularreko EBren betekizunei aurrea hartu diela erakusten du

Ficobak Europa hegoaldeko ekonomia zirkularreko ekitaldirik handiena hartu du

Biltzarrean, Europako produktu zirkularren erakusketa handiena azaldu da, bai eta Europako Batzordeak ekodiseinu jasangarriari dagokionez emandako jarraibideak edo iraunkortasunari buruzko informazio korporatiboari buruzko zuzentarau berria ere, Europako Parlamentuak onartua. Alejandro Villanuevak ordezkatu du Europako Batzordea, Ekonomia Zirkularreko eta Lidergo Industrialeko alboko buru gisa.

(informazio+)



> 2022ko azaroa

> **Frantziako Senatuak Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoetako mugaz gaindiko aurrekontuak saritu ditu**

Ideiak 2022 izan zen Aldundiak eta Saileko Kontseiluak bultzatutako lehen edizioa

Frantziako Senatuak bultzatzen duen Berrikuntza Publikoaren Behatoki Nazionalak urtero ematen duen zilarrezko "Territoria" saria jaso du. Sari banaketa Parisen egin zen, Biltzar Nazionalean. Eider Mendoza Gobernantzako foru diputatuak eta Jean-Jacques Lasserre Pirinio Atlantikoetako presidentek jaso zuten saria. Mendozak Ideiak 22 "Europaren eraikuntzaren erronkaren" barruan kokatu zuen.

[\(informazio+\)](#)

> **Next funtsak merkataritzara iristeko koordinazioa defendatu zuen Eusko Jaurlaritzak Zumarragan**

Zumarragan ospatu ziren Estatuko merkataritza sariak eta bertako Udala saritua izan zen

Zumarragak hartu ditu 2022ko Barne Merkataritzako Sari Nazionalak, eta 25.000 biztanletik beherako udalerrien sailekoa irabazi du. Javier Hurtado sailburuak adierazi zuen "funtsezkoa dela administrazioen koordinazioa laguntzen kudeaketan, Next Europako Funtsen kasuan egiten ari garen bezala". Pukas Surf-ek eta Benegas lurrin-dendak, biak Donostiakoak, ohorezko errekonozimenduak jaso zituzten.

[\(informazio+\)](#)

> **Donostian EBko enbaxadoreen goi-bilera egingo da 2023ko irailean**

COREPER 27 bazkideen EBrako ordezkariak osatzen dute

EBk irailaren 21etik 23ra egingo du Coreper II bilera bat, urte horretako bigarren seihilekoan Espainiaren Lehendakartzaren esparruan Europar Batasuneko erakundeen aurrean dauden 27 enbaxadoreak biltzen dituen. Kontseilu Europarraren organo aholkularia da, bai eta koordinazio politiko eta diplomatikorako organoa ere. Aurreikuspenen arabera, bilerak bisita-programa bat izango du hirian edo inguruan. Bi bilera mota daude: Coreper I (sozialagoa) eta Donostiaren kasukoa, Coreper II, barne eta kanpo politikako gaiak jorratzen dituztenak, baita ekonomiko-finantzarioak ere.

[\(informazio+\)](#)



ESKUALDE POLITIKA ETA KOHESIO POLITIKA

> Europako Batzordeak eta Estatuak 2021-27 Lankidetzak Akordioa itxi dute EGEF, EGIF+, IAAEF eta BTF funtsetarako

2014-20an baino % 15 baliabide gehiagorekin, funtsek 5 ardatz izango dituzte: berritzailea, ingurumenekoa, garraioekoa, soziala eta tokiz-tokikoa

Hilaren 18an onartutako Akordioak Estatuak administrazioek (23.140 milioi) eta Europar Batasunak (36.682 milioi) egindako ekarpenak kuantifikatzen ditu. Laguntza horiek Next Generation EU laguntzen onuradun den Estatuak ezohiko planaren osagarri izango dira, plan horrekin bat baitatzen gai askotan.

23.397 milioi Eskualde Garapenerako Europako Funtzari (EGEFi) dagozkie;

11.296 milioi Europako Gizarte Funtz Plusari (EGIF+);

869 milioi Bidezko Trantsizioarako Funtzari,

eta kohesio funtsetatik kanpo, 1.120 milioi IAAEF (Itsas, Arrantza eta Akuikulturako Europako Funtzari.

5 helburu politiko daude, kasu bakoitzean funts horietako batzuei dagozkienak.

1.ak (8.300 milioi) EB lehiakorragoa eta adimentsuagoa finantzatzen du, I+G, digitalizazioa edo ETEentzako inbertsioa barne;

2.ak, 9.900 milioirekin, energia eraginkorra eta berriztagarria, klima-egokitzapenak, ekonomia zirkularra, trantsizio berdea eta biodibertsitatea jorratzen ditu.

3.ean 1.200 milioi euro bideratu dira lotura hobekak dituen EBrako; trenbide korridoreak eta irisgarritasuna, ibilgailu garbiak edo garraio publikoa;

4.ean 12.300 milioi bideratu dira enplegura, hezkuntzara, Lanbide Heziketara, inklusiora eta baita pobreziaaren aurka, bereziki haur pobrezia.

5. helburuaren arabera, 2.100 milioi euro bideratuko dira herritarrengandik hurbilago dagoen EBrak begira, tokiko, hiriko edo hiriz kanpoko garapenerako proiektu integratuekin.

Eskualde ultraperiferikoetara, trantsizio teknologiko eta energetikoek kaltetutako eremuetarako) eta laguntza teknikorak ere bideratzen dira beste zenbatekoak. Funtz bakoitzak eskualde anitzeko programa bat edo gehiago izango ditu, eta EGIF+ eta EGEF funtsetan 19 eskualde-programa egongo dira.

[\(informazio+\)](#)



> EGEF eta EGIF+ Euskadi 2021-27 Programak onartu dira

Gipuzkoak 16,62 milioi euro jasoko ditu EGEFetik

Europako Batzordeak azaroaren 29an onartu du EGEFen Euskadirako 2021-27 Programa. Bertan, EAEko estrategia, helburu politikoak eta lehentasunak jasotzen dira, EBkoekin bat datozenak.

Baieztatu da Gipuzkoak 16,62 milioi euro jasoko dituela EGEF funtsaren testuinguruan, planifikatutako ekintzen kostuaren 40,15 milioi euroko zati bat estaliko duena. Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu politiko hauetan parte hartuko du:

OP.1 Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa (2 jarduera):

Administrazio elektronikoa: e-gobernurako plataformak garatzera eta/edo indartzera bideratutako ekintzak.

IKT azpiegiturak: berritasun eta gaitasun handiko azpiegiturak eta e-Administrazioko zerbitzuak garatzeko eta elkarreragingarritasunerako sare seguru eta ultra-azkarrak hedatzea.

OP.2 Europa berdeagoa. 3 ekintza, 3 helburu zehatzei lotuak:

Energia-eraginkortasuna: industria-prozesuetako hondakin-beroak berrerabiltzea, hurbileko eraikinen energia-beharrak asetzeko.

Biodibertsitatea: ibai-ibilguak iragazkortzea eta ibaiak lehengoratztea.

Hiri mugikortasuna: Gipuzkoako bizikleta bideen lurralde planaren garapena

Bestalde, EGIF+ren euskal programa 2021-2027, Galiziakoarekin batera, Europako Batzordeak onartu duen Estatuko lehenengo bietako bat izan da.

[\(informazio+ - EGEF gaztelaniaz\)](#)

[\(informazio+ - EGIF+ gaztelaniaz\)](#)



> **Azitin-Maltzagako oinezkoentzako eta bizikletentzako bidea, Euskadiko 2014-2020 EGEF Programa Eragilearen jardunbide egokitzat onartua**

Eibarko obraren 5,2 milioietatik 1,1 Eskualde Garapenerako Europako Funtsak kofinantzatu ditu

2,1 kilometroko tarte hori 2013an onartutako Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Planaren barruan garatutako guztien artean anbizio handienekoa da maila teknikoan, orografiak estutzen zuen haran batean lehendik zeuden bide, trenbide eta bestelako azpiegiturak direla eta. Ondorioz, lau pasabide jarri behar izan dira, horietako bi 80 metrotik gorakoak, zehazki, Ego eta Deba ibaiak eta GI-627 errepidea zeharkatzen dituztenak. Azken faktore horrekin eta biztanleria-dentsitatearekin lotuta, mota horretako konexioa behar zuen eskualde bati ematen dio zerbitzua, baita aisialdiaz eta kirolaz haraindiko erabileretarako ere. EGEF funtsaren kudeaketaren testuinguruan jardunbide egokitzat hartu da, honako irizpide hauek betetzen dituelako:

- Zabalkunde handia onuradunen, onuradun potentzialen eta, oro har, herritarren artean.
- Elementu berritzaileak txertatzea.
- Lortutako emaitzak ezarritako helburuetara egokitzea.
- Eskualdeko arazo edo ahultasun bat konpontzen laguntzea.
- Xede den biztanleriaren gaineko estaldura-maila handia.
- Aukera-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren, ingurumen-iraunkortasunaren eta/edo gizarte-erantzukizunaren irizpide horizontalak txertatzea.
- Esku-hartze publikoko beste politika edo tresna batzuekiko sinergiak.

(informazio+ - Praktika ona – Azitin - Maltzaga)

(Praktika egokien komunikazioa)

> **PLEko 8 lurraldeen Kontseiluak Arantzazuko Adierazpena egin du eta mugarik gabeko Europa defendatu du**

EBk Ukrainari, zirkulazio askeari eta mugaz gaindiko lankidetzari babesa ematea aldarrikatu du

Euskadi gaur egun Pirinioetako Lan Elkartearen buru da. Pirinioetako 4 Autonomi Erkidegoaren, Andorraren eta Akitaniako eta Okzitaniako eskualdeen artean txandakatzen da. Deklarazioak mugako pasabideak irekitzea eskatzen du, eta Pirinioez gaindiko hidrogeno-sareen aldeko beste bultzada bat ematen du. 2027ko Pirinioetako Estrategia defendatu da; PLEren funtsezko programa kudeatzeko agintaritza berri du ere, hau da, Interreg-POCTEFArena.

(informazio+)



> EGEF Programa Operatiboaren 12. Jarraipen Batzordea

Azaroaren 8an, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gunea aretoan, egin zen Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF) 2014-2020 Euskadiko Programa Operatiboaren 12. Jarraipen Batzordea

Jarraipen Batzordean Europako Batzordearen, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundien erakundeen ordezkariak parte hartu zuten, bestelako gizarte eragileekin batera.

Bileran, EGEF 2014-2020 Programa Operatiboaren betetze mailaren eta itxiera aurreikuspenen berri eman zen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan Programaren exekuzio maila %107,4koa da.

Bertan, Euskadiko EGEF 2021-2027 programaren egoera ere aztertu zen; programa hori joan den hilean aurkeztu zitzaion ofizialki Europako Batzordeari. Euskal Autonomia Erkidegoari esleitutako EGEF laguntza 165,7M-koa izango da.

(informazio+)

> Euskadi da Europako I+Grako funtsen per capita itzuleraren liderra, Estatuko batez bestekoa ia hirukoiztuz

Hala jasotzen du Euskadiko Zientziari buruzko 2022 Txostenak

Eustatek jakinarazi du Euskadi Europako berrikuntza handiko herrialdeen artean mantentzen dela EIS 2022an (European Innovation Scoreboard). 0,6 Euskadiko balioa 27-EBko batez bestekoa baino % 10 handiagoa da, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren Hazitek programari esker, EGEFekin batera finantzatuta. Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak parte hartu zuen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren XXII. Astearren inaugurazioan edo Donostian egindako Global Innovation Day ekitaldian aurkeztutako datuetako batzuk dira.

(informazio+)



EB 2024: ESTRATEGIA

> Eusko Jaurlaritzak lagundu ditu Euroeskualde mailako kanpusa eta DIPCren parte-hartzea Europako Espalazio Iturrian

Donostiako zentroa Euskampus, Mugaz Gaindiko Laborategietako eta ESSeko partaide aktiboa da

Eusko Jaurlaritzak, halaber, ENLIGHT Europako unibertsitatearen, Euroeskualde "smart" edo adimentsu baten eta Mugaz Gaindiko Lankidetzeta Laborategien sarearen aldeko apustua egin du. Azken horiei 500.000 euroko dirulaguntza eman die, eta horien bidez, besteak beste, EBn ikusgarritasuna lortu nahi da. Donostia International Physics Center Euskampuseko Patronatuaren bultzatzaileetako bat da, zein Bordelen bildu baita azaroan. Beste 500.000 euro jaso ditu DIPCek Neutrinoen Espalaziorako Europako Iturrira (ESS) bideratutako lanetarako. Iturriak Suedian eta Euskadin izango ditu egoitzak. Bestalde, Hezkuntza Sailak iragarri du Euskadik 5,5 milioi euro jaso dituela material aurreratuen ikerketarako Next funtsetatik, eta alor horretan ere funtsezkoa da DIPC.

(informazio+ - Euskampus)

(Laborategiak)

(DIPC eta ESS)

(-Next)

> Mugikortasunerako foru aurrekontuak bizikleta bide berdeak egokitzea aurreikusten du Next funtsen laguntzarekin

Romero diputatuak Europa ere aipatu zuen Gipuzkoa Bizikletan II. Jardunaldian

Rafaela Romerok, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatuak, bere foru departamentuaren aurrekontuak aurkeztu zituen Batzar Nagusietan, % 26ko gehikuntzarekin Gipuzkoako bizikleta bide sareko inbertsiorako, neurri batean Next funtsen babesa espero delako. Tokiko bidegorrien sareari emandako laguntzak aurrekontua bikoizten du, eta apustu puntuala izatetik egiturazkoa izatera igarotzen da. Gipuzkoa Bizikletan II. Jardunaldian ere Europako testuinguruari buruzko hainbat aipamen egin zituzten diputatuak eta hizlariak, hala nola Euroveloko ordezkariak (Txirrindularien Europako Federazioa).

(informazio+ - aurrekontua)

(informazio+ - Jardunaldia)



> **Gipuzkoako Hondakinen Prebentziorako 14. Europako Astea: Aldundiak topaketak eta jarduerak antolatu ditu**

Emakumeak, gazteria, birziklapena, moda eta elikadura izan dira sektore protagonistak

Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatuak aurkeztu zuen azaroaren 19tik 27ra garatu den programa. Denda iragankor baten eta moda iraunkorreko klusterraren desfilearen aldeko apustua berritu da; Gipuzkoa Basketekin ere ekimen bat egin da Naturklimaren Klima Aldaketaren Fundazioaren mesedetan. Karpa batean birziklapenaren klusterreko empresa-jarduerak erakutsi dira, eta LHko ikasleek berriz parte hartu dute berrerabilitako materialekin egindako eskulturen erakusketa batean. Ekitaldi bat izan da Elikagaien Bankuarekin, bere mesedetan ere Afari Iraunkor eta Solidario bat eta Gastronomia Iraunkorrari buruzko Jardunaldi bat. Aurten WAS Circular University erakusketa gehitu da, Ingeniaritza Eskolan ekonomia zirkularraren emakumeen lidergoa ardatz duen topaketa batekin.

Bestalde, Euskadi mailan 120 ekintza aurkeztu dira Europar Batasunaren aurrean nabarmentzeko Europako Astea, eta hautatuetakoa bat Bergarako Udalak sustatutako Hondakin jasangarriak: fikzioa ala errealitatea? erakusketa izan da.

(informazio+ - aurkezpena)

(- WAS Circular)

(- Elikagai Bankua)

(- Gastronomia)

(- Klusterra)

(- Basket)

(- Eskulturak)

(-Moda)

(- Bergarako erakusketa)



> 2022ko azaroa

> **Aldundiak isuri kutsagarrien EURO kategoriak aplikatuko ditu bidesarietako deskontuetarako, EBk adierazten duen bezala**

“Gutxiago kutsatzen duten ibilgailuei bidesarietan hobariak ematearen alde dago Europa”

“Urte hasieran hasiko gara EURO kategoriaren arabera deskontuak aplikatzen gaitasun handiko gure bideetan”, adierazi du Aintzane Oiarbidek. Laguntzak Europako Batzordeak ezarritako mugen artekoak izango dira: % 13 eta % 25 artekoak. Tasa ibilgailu elektrikoa, hibridoa edo gasezkoa izatearen arabera izango da, baita etiketa edo sailkapenaren arabera ere, ibilgailu astunetan EURO 5 edo 6 motorreko etiketak barne.

[\(informazio+\)](#)

> **Erasmus+-en E-MLSR proiektua zabaldu du Lanbidek Donostian, adin ertaineko gaitasunen ebaluazioari buruzkoa**

Bere gaitasun-ebaluaketa tresna erakutsi zaie lan-merkatuko eragileei.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua E-MLSR (European Mid Life Skills Review, “Adin ertainerako eskumenen berrikuspen europarra”) proiektuaren bazkide laguntzailea da. Proiektu hori Erasmus + Programak finantzatzen du, eta "Hezkuntza eta Lanbide Heziketa" azpiprogramaren barruan dago. Esparru horretan, hedapen-saio bat egin zuen Donostiako Kursaalean.

[\(informazio+\)](#)

> **CIDETECek eduki solidoko bateriak garatzen ditu EBko Horizon berrikuntza-esparruaren laguntzarekin**

Energia biltegitratzeko dibisioak Europako funtsak ditu 8 proiektutarako

Proiektu horietako bat SPINMATE da, automobilgintzaren sektorerako egoera solidoko baterien fabrikazioan eta industrializazioan zentratzen dena. Batt4EU, bateriak garatzeko EBren elkarrearen parte da proiektua.

[\(informazio+\)](#)



> 2022ko azaroa

> **Aldundiak LIFE Kantauribai euroeskualde proiektuan parte hartu du, ibaiak birnaturalizatzeko**

EBko LIFE ingurumen-esparruak sustatzen du, Oria, Urumea eta Bidasoako arroak barne

Gipuzkoako Foru Aldundiak azaroan aurkeztutako proiektu honetan parte hartzen du, Obra Hidraulikoen zuzendaritza nagusiaren bitartez, Nafarroako gobernuarekin eta beste 10 erakunde bazkiderekin batera, Akitania Berriko zenbait barne. LIFE programak kostuaren % 60 jartzen du, 6,5 milioi euro baino gehiagorekin, Biodibertsitateari buruzko Estrategian laguntzen baitu.

[\(informazio+\)](#)

> **Europako Go-I-ISAB abeltzaintza proiektua aurkeztu da Aretxabaletan, Europako EIP-AGRI erakundearen laguntzarekin**

Proiektuak Gipuzkoako behi frisiarren datuak monitorizatzen ditu

GO_I-ISAB Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako frisiar behian espezializatutako erakundeak kide dituen talde eragile bat da, eta Aretxabaletako Etxeberri ganadutegian bere emaitzak aurkeztu ditu. Sistema berritzaile baten bidez, 253 behiren ongizatea eta osasuna monitorizatzen dituzte Gipuzkoan, ekoizpenean dituzten onurak aztertzeko eta ondorioak Estatu osoan aplikatzeko. Proiektuak EIP-AGRI Nekazaritzako Produktibitate eta Iraunkortasunerako Europako Berrikuntza Lankidetzaren funtsak ditu.

[\(informazio+\)](#)

> **Foru Aldundiak eta beste bazkide batzuek, EBren laguntzarekin, mendiko larreei buruzko LIFE Oreka Mendian proiektua burutu dute**

Arantzazun itxitako proiektuak Iparraldea ere inplikatu du

EBko LIFE ingurumeneko esparru-programak kofinantzatutako proiektuak EAeko eta Iparraldeko erakundeak inplikatu ditu Europa osoan artzaintzaren atzerakadak eta hainbat arazo sortzen dituen landarediaren aurrerapenak eragindako habitat mota bat aztertu eta hobetzeko.

[\(informazio+\)](#)



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

- > **Iritzi azterketa Euskadin: EBk eragiten diela uste dute 10etik 7k eta % 56k Euskadiren parte-hartze handiagoa nahi luke**

(informazio+ - albistea)

(galdeketa)

(prentsa oharra)

- > **Berrikuntza-adierazleen Europako panelaren azterketa (EIS 2022)**

(informazio+)

- > **Hizkuntzen Europako Esparruari buruzko txostena: Europako Kontseiluak euskaraz zabaldu du**

(informazio+)

- > **EBko Euskal Ordezkaritzaren txostenak EBren laguntzei buruz: Bauhaus, kultura eta hezkuntza**

(informazio+ – Bauhaus ekintza berritzaileetarako deialdia)

(informazio+ – Culture Moves Europe)

(informazio+ – Music Moves Europe)

(informazio+ – HEI – berrikuntza Goi Mailako Hezkuntzan)



EUROPAKO DEIALDIAK

- > **NetZeroCities Programa. Guztirako karbono-isuri gabeko hirien programa pilotua. Horizon esparrua**
 - *NZC-H2020-202209.*

- > **Innowwide Programa. ETE berritzaileak nazioartekotzeko laguntzak. Horizon esparrua.**
 - *INNOWWIDE.EU.*

- > **Marie Skłodowska Curie ekintzen programa (MSCA). Doktorego-sareetarako laguntzak (DN). Horizon esparrua.**
 - *HORIZON-MSCA-2022-DN-01-01.*

- > **ADMA TranS4MErs Programa. Fabrikazio aurreratuko ETEak eraldatzeko laguntza eta prestakuntza. Horizon esparrua.**
 - *ADMATranS4MErs.*

- > **Digital Europe Programa. Europako berrikuntza digitaleko guneen hasierako sarea (EDIH).**
 - *DIGITAL-2022-EDIH-03-INITIAL*



> 2022ko azaroa

> **Zibersegurtasunaren ataleko 4 deialdi (CS) 3 klusterrean (CL3, herri segurantz) Horizon esparruan. HORIZON-CL3-2022-CS-01**

- *CL3-2022-CS-01-01, -02, -03, -04.*

> **4. klusterreko teknologia digital sortu berrien eta humanizatzaileen atalen deialdiak (CL4, digitalak, industrialak eta espazialak) Horizon esparruan.**

- *CL4-2022-HUMAN-02-01*

-01 . Adimen artifizialeko, datuen eta robotikako lankidetzak: giza ahalduentzeko proiektuak.

-02. Adimen artifizialeko bikaintasun-zentroen Europako "itsasargi" sarerako laguntzak.

- *CL4-2022-DIGITAL-EMERGING-02*

-06. "Adimen eta errendimendu fisiko aurreratuak".

-17. Material elektronikoen eta fotonikoen aplikazioak

-18. Energia biltegitratzeko aplikazioak

-19. Aplikazio biomedikoak

-20. Konposituak, estaldurak, aparrak

-22. Grafenoaren eremuaren koordinazioa

Adimen artifizial, datu eta robotikaren lankidetzak:

-05. Industriaren eta zerbitzuen optimizazioa.

-07. Gaitasun robotiko aurreratuak sektore estrategikoetan.



> 2022ko azaroa

> **LIFE Programa. 18 Energia garbirako trantsizioa ataleko deialdiak (CET). LIFE-2022-CET.**

- *LIFE-2022-CET-*

-ENERPOV, -INNOFIN, -RENOPUB, -DEEPRENO, -EE1st, -COMPLIANCE, -ENERCOM, -HEATPUMPS, -POLICY, -BUILDPERFORM, -HOMERENO, -MAINSTREAM, -BUILDSKILLS, -FINROUND, -LOCAL, -PDA Y -DH.

> **Europako Berrikuntza Kontseilua. Enpresa berrien Startup Europe programarekin sinergiak eratzeko laguntzak.**

- *HORIZON-EIC-2022-STARTUPEU-01-01*

> **SMP programa (merkatu bakarra). Europako estatistika-sistemaren atala (ESS). Estatistika ofizial fidagarriko metodo berritzaileak.**

- *SMP-ESS-2022-TrustedSmartSurveys-H7-6257*

> **DUT lankidetzeta (Hiri Trantsizioak Gidatzen). Energiako, mugikortasuneko eta ekonomia zirkularreko udal- eta toki-proiektuak.**

- *DUT_2022*



> 2022ko azaroa

> **Energia Garbietarako Trantsizioko Lankidetzeta (CETP). Zeharkako dimentsio sektorialak eta soziopolitikoak dituzten proiektu teknologikoak. Berrikuntzako Horizon Esparrua**

- *CETP_2022*

> **Berrikuntzako Horizon Esparrua. Harremanetarako Gune Nazionalen (NCP) estatu-arteko sare bat sortzeko laguntzak, Horizonen definitutako EBko misio estrategikoetarako.**

- *HORIZON-MISS-2022-NCP-01-01.*

> **Horizon berrikuntza esparrua: 3. klusterraren 27 deialdi (segurtasun zibila). Krimen eta terrorismoko atalak (FCT), mugak (BM), hondamendiak (DRS), azpiegitura erresilienteak (INFRA) eta segurtasuneko I+Grako laguntza (SSRI).**

- *HORIZON-CL3-2022-FCT-01-*. Krimena eta terrorismoaren aurkako borroka.
- *HORIZON-CL3-2022-BM-01-*. Mugen kudeaketa.
- *HORIZON-CL3-2022-DRS-01-*. Hondamendien aurreko gizarte erresilientzia.
- *HORIZON-CL3-2022-INFRA-01-*. Azpiegitura erresilienteak.
- *HORIZON-CL3-2022-SSRI-01-*. Segurtasunaren ikerketa eta garapenarentzako sustapena.

"EUROPAR FUNTSAK GIPUZKOAN" Webgunea